

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Irailaren 20ko 103/2016 Foru Agindua, aldatzen duena apirilaren 27ko 20/2006 Foru Agindua, produktibitate osagarria ezarri zuena Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan

Apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak produktibitate osagarria ezarri zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan. Harrezkero, hiru bider izan da aldatua; hain zuzen ere, otsailaren 14ko 14/2007 Foru Aginduaren bidez, urtarrilaren 22ko 3/2009 Foru Aginduaren bidez eta maiatzaren 29ko 82/2013 Foru Aginduaren bidez.

Une honetan ezinbestekoa da beste aldaketa bat egitea, zaintza medikoei eta oporren hainbanako edo prorratari eragiten diena.

Zaintza medikoei dagokienez, zehaztu egiten da lanegunetan zazpi orduko zaintzak ordaintzea ahalbidetzen duen araua, zeren eta, salbuespenez izan bada ere, onartua izan baita aukera hori, zaintza medikoen bidez estali beharreko ordu tarteen iraupena guztira aldatu gabe.

Oporren hainbanakoari dagokionez, adostu egin da ordezkari sindikalekin beste idazketa bat, zeinak orain arte jaso gabeko zenbait egoera jasotzen dituen.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendua onartzen dituenak –lotuta dago abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoaren, 40. artikuluaekin–, esleitutako eskumenez baliatuta, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan produktibitate osagarria arautzen duenaren, 2. C) puntua. Haren testua honek ordeztuko du:

C) Zaintza medikoak: produktibitate osagarriaren bidez sari bat ordainduko da GOFeren eremuan benetan egindako zaintza mediko bakoitzarengatik, eskala honi jarraituz:

- Lanegunean egindako zaintza (7 ordu): 34,24 euro/zaintza
- Lanegunean egindako zaintza (osoa): 83,15 euro/zaintza
- Larunbatean egindako zaintza: 117,45 euro/zaintza
- Igandean edo jaiegunean egindako zaintza: 146,56 euro/zaintza

Bigarrena. Aldatzea apirilaren 27ko 27 Foru Aginduaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan produktibitate osagarria arautzen duenaren, D) puntua. Haren testua honek ordeztuko du:

D) Oporren hainbanakoa edo prorrata: Urriko lansarian produktibitate osagarria sartuko da, B) eta C) idatz zatietan jasotako kontzeptuei eta oporraldiari dagokiena.

Funtzionarioei banan-banan kalkulatu zaie prorrata, aurreko urteko urriaren 1a eta aribidean dagoen urteko irailaren 30a artean aipatutako kontzeptuengatik jasotako hileko batez bestekoaren arabera. Enplegu Baldintzen Erabaki Arautzailearen 31.2.a artikuluan norbere gauzetarako jasotako eszedentzia edo baimenak direnean, ez da beharrezkoa izango izendapenak

aipatutako tarte hori guztia har dezan. Horrelakoetan, eszedentzia edo baimenaren iraupena gorabehera, hileko batez bestekoa aurreko urteko urriaren 1a eta aribidean den urteko irailaren 30a arteko tarteagatik egingo da berdin-berdin.

Hirugarrena. Foru agindu hau onartzen den egunean bertan sartuko da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan -azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenaren, 116. artikuluaekin loturik- xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ